



begoñazpi
ikastola

2020/2021

Hezkuntza Ez-Formaleko Programa



Arte-programa



Musika



Helburuak

Musika adierazteko guztiok dogu sentitzeko eta entzuteko gaitasuna, hau da, maila desbardinetan bada be, garatu eta sustatu behar dan musikaltasuna. Umea lehen aldiz inguruagaz hartu-emonetan jartzen daben entzumen esperientziei ekiteko, ikasleen garapen integralari aukera emonez, hainbat metodo erabiltzen dabezan musika-eskolak emongo dira.

MAX Y MIA METODOA

Programa honen helburu nagusia, umearen garapenez gain, musika potentzialaren hedapena be bada. Hau, umearen bizitzako unearen arabera, eboluzio-aldietan antolatutako metodoa da.

COMBO

Musika moderno edota orkestran antolaturiko taldeak dira. Honeek, ikasitakoa jolas zein modu dibertigarrian jarriko dabe ikasitakoa martxan.

Informazio erabilgarria

ARAUAK

- Ikasleei emoten jaken materiala, hurrengo hilean kobratuko jatzue.
- Prezioan ez da ez materialik ez musika-tresnarik sartuko.

HAUR HEZKUNTZA

- Taldeek, gehienez, hamar ikasle izango dabe.

LEHEN HEZKUNTZA ETA DBH

- Musika-tresna jotzen aurrera egin eta hobetzeko, etxean astero erreparatu eta ikasi beharko da.
- Garrantzitsua da musika-tresna ekartzea baita klase-orduak behar dan moduan aprobetxatu eta honeei etekina ataratea be.
- Egun eta ordu aldaketak egon daitezke.
- Beharrezkoa izanez gero, mailakatzeko frogak egingo dira.

Musika-tresnak

Musika-tresnak eta liburuak ordaindu egin beharko dira.

Lehen Hezkuntzan landuko diran musika-tresnak: tuba, zeharkako txirula, klarineta, saxofoia, txistua, pianoa, biolina, biolontxelo, gitarra klasikoa, akordeoia, perkusioa, tronboia eta tronpeta.

DBHn landuko diran musika-tresnak: txistu, trikitixa, bateria, gitarra klasikoa/elektrikoa, baxua, ukelelea, biolina, kantua, teklatura, baxu elektrikoa, audio and home studio eta DJ (gitxiengo kopurua beharko da).

*Ikastolatik kanpo musika-tresna ikasten eta maila egokia daben ikasleek, combo ikasteko matrikula egin ahalko dabe. Musika-tresna eta combo, banatuta kobratuko dira. Ikasleek, combo egin nahi badabe, musika-tresna egin beharko dabe. Musika-tresna, ostera, bakarrik be egin ahal da.

▶ Bideoa ikusi

HAUR HEZKUNTZA

4 - 5 urte
MAX ETA MIA
METODOA

▶ Bideoa ikusi

LEHEN HEZKUNTZA

1. maila MAX ETA MIA METODOA + ABESBATZA	2. maila MAX ETA MIA METODOA + BIRAKARIAK	3. - 4. maila HIZKUNTZA MUSIKALA + MUSIKA- TRESNA
--	---	--

5. maila AUKERA 1* HIZKUNTZA MUSIKALA + MUSIKA-TRESNA + ABESBATZA + MUSIKA-TRESNA TALDEA (ikastorduanordu lektiboan)	5. maila AUKERA 2 HIZKUNTZA MUSIKALA + MUSIKA- TRESNA (ordu erdi edo ordubete)
---	---

▶ Bideoa ikusi

DBH

1. - 2. - 3. - 4. maila
MUSIKA MODERNOA
MUSIKA-TRESNA
+
COMBOA

*Aukera honetan izena emoteko, LH 3. eta 4. mailan Hezkuntza Ez-Formaleko klaseak eginda izan behar dira.